

Juan José Aquerreta ...eta antzeko [Heian Shodan]

ESKOLA LANTEGIAK

Nafarroako Museoa- 2022-23ko ikasturtea
(apirila-maiatza)

Martxoaren 28tik 22/23 ikasturtearen amaierara arte, Nafarroako Museoko eskola tailerrek Juan José Aquerreta artistaren lana izango dute ardatz, 70eko hamarkadatik gaur egunera arte egile nafarraren ibilbide pertsonal eta sortzailea planteatzen duen aldi baterako erakusketa aprobetxatuz.

Jarduera, erakusketara bisita labur bat eginez hasiko da. Bertan, margolari eta eskultore nafar honen berezitasuna ikusi ahal izango dugu, bere sormenezko proposamenen bitartez.

Helburu orokorrak

- Artista nafarren lanak ezagutaraztea.
- Lengoia eta adierazpen artistikoen aniztasuna estimatzen eta errespetatzen ikastea.
- Museoaren irudia hurbiltzea, erakusketetarako tokia izateaz gain, elkartzeko, lan egiteko eta gozatzeko leku ere badela ikusarazteko.
- Plastika-hezkuntza arte-ingurunetik lantzea, ikastetxeen curriculumaren osagarri.

Jardueraren garapena

Lantegiek 90 minutu inguru irauten dute (30 minutu inguru bisitaldirako eta 60 inguru lantegirako).

. Museoaren sarreran, hezitzaileek ongietorria egingen diete bisitariei, beren burua aurkeztuko dute eta erakusketa geletan gorde beharreko portaera-arauak gogoraraziko dizkiete. Aurkezpen labor horren ondotik, taldea lantegira eramanen dute, berokiak eta bizkar-zorroak utz ditzaten han.

Bisitaldia hasi aurretik, ikusiko dutenari buruzko sarrera txiki bat egingen dute eta jarduera zertan datzan oro har azalduko diete.

. Jarduera hasteko, Museoko aldi baterako erakusketa-aretoa bisitatuko dugu, hainbat diziplinako obren (marrazkia, pintura edo eskultura) aukeraketa bati aurre egingo diogu, eta erretratuetan eta autoerretratuetan arreta berezia jarriko dugu, artistaren ibilbidean gai garrantzitsuak eta errepikakorra baita. Bere autorretratuek, adibidez, gaztarotik hasi eta oraintsuagoko uneetara arte hartzen dute parte, eta bere bilakaera fisikoaren testigantza uzten dute. Alderdi hori interesgarria da parte-hartzaile bakoitzaren adin eta berezitasunekin lan egiteko orduan.

Tailerrean, taldeek aurretik erakusketa-aretoan ikusitakoarekin lan egin eta esperimendu ahal izango dute, kide bakoitzak bere erretratua margotuz eta bere irudiaren irudimenezko bilakaera eginez.

. Jarduera bukatutakoan, ikasleak beren lanez arduratuko dira eta lan horiek eramanen dituzte ikastetxera edo ikastaldearen arduradunak denak bilduko ditu eta haien kargu egingen da.

. Ikasleek eskuak garbituko dituzte taldeari museoko irteerara lagundu aurretik.

Berriazko helburuak

· Norberaren sormena eta adierazpen plastikoarekiko atsegina bultzatzea.

· Marrazkiaren, pinturaren eta eskulturaren mundura hurbiltzea, eta arte-diziplina horiei balioa ematea.

· Erretratuari buruz hausnartzea, denboraren joanarekin eta pertsonok jasaten dugun bilakaera fisikoarekin lotutako kontzeptuak landuz.